



7. FUNTSEZKO JARDUERAK

Enpresaren eguneroko jarduerak funtsezkoak dira, ez bakarrik patineteak alokatzeko, baita zerbitzu osoa kudeatzeko ere. Jarduera hauek lau arlotan banatzen dira: fisikoak, teknologikoak, giza baliabideak eta intelektualak.

Lehenik, jarduera fisikoak. Patineteak egoera onean mantentzea ezinbestekoa da. Horretarako, tailerrean konponketak eta mantentze lanak egingo dira. Flotaren kudeaketa egunerokoa da, patineteak behar bezala banatuta egongo dira, eta bezeroak beti erabilgarri dauden patineteak aurkitzeko. Patinete bakoitza egoera onean dagoela bermatzeko, mantentze txostenak egingo dira astero.

Bigarrenik, jarduera teknologikoak. Web orrialdea eta aplikazioa eguneratu behar dira etengabe. Bezeroak patinetea erreserbatu eta ordaindu ahal izan behar du modu erosoan. Era berean, datuen segurtasuna eta sistemaren egonkortasuna bermatu behar dira. Teknologia horrek patineteen kokapena eta erabilera jarraipena ere ahalbidetzen du, eta horrek kudeaketa errazten du.

Hirugarrenik, giza baliabideak kudeatzea funtsezkoa da. Langileak ondo prestatuta egon behar dute, bezeroei arreta ona eskaintzeko eta patineteak mantentzeko. Ordutegiak eta eginkizunak modu koordinatuan banatu behar dira. Langile motibatu batek zerbitzuaren kalitatea handitzen du eta bezeroak pozik geratzen dira.

Azkenik, baliabide intelektualak. Hau da, enpresaren ideiak, marka, antolaketa eta lan egiteko modua. Jarduera hau funtsezkoa da, enpresa bereizteko eta lehiakortasuna mantentzeko. Marka indartsua eta estrategia ondo planifikatua bezeroak erakartzen laguntzen du.

Laburbilduz, jarduera hauek guztiak modu koordinatuan egin behar dira, flotaren egoera, zerbitzuaren kalitatea eta enpresaren etorkizuna bermatzeko.

